

JOAN MARI TORREALDAI NABEA

Foruan jaio zen 1942an.

Filosofia eta Teologia ikasketak bete zituen, Oliten (1960-1963) eta Arantzazun (1963-1967), hurrenez hurren. Toulouseko “Institut Catholique” ikastetxean atera zuen Teologiako lizentziatura, 1972an, eta Parisen, berriz, Hizkuntza Frantseseko diplomatura (“Alliance Française”, 1972) eta Gizarte Zientzietako lizentziatura (“Institut d’Etudes Sociales”, 1975). Informazio Zientzietan graduko lizentziatua, (Euskal Herriko Unibertsitatea, 1984). Zientzia Politikoetan eta Soziologian doktorea da (Deustuko Unibertsitatea, 1991). Tesia honako hau izan zen: "La censura gubernativa y el libro vasco (1936-1983): Análisis de los informes del lectorado".

Anaitasuna hamabostekaria zuzendu zuen. Deustuko Unibertsitatean Soziologiako irakasle izana (1976-1978 eta 1991-1993 urte tartean), Doktoratutzako klaseak ere eman ditu Euskal Herriko Unibertsitatean zein Deustukoan, 1978an. *Bestalde*, Euskal Idazleen Elkartearen erakundeko idazkaria izana da (1969-1978), bai eta Soziologoaren Euskal Elkartearen erakundeko idazkaria (1979-1980) ere.

Euskaldunon Egunkaria-ren Administrazio Kontseiluko kidea izan zen hasieratik bertatik, eta 2000tik 2003ra bitartean Lehendakari izan zen. 1977. urteaz geroztik, *Jakin* aldizkariaren zuzendaria da.

1975eko ekainaren 27an, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen. Akademiaren enkarguz, euskal idazleen eta euskarazko ekoizpen idatziaren azterketa egin zuen.

Hogeita hamar urtetan zehar landu den lan bibliografikoak bi alor nagusi ditu: batetik, liburua bera gizarte adierazle gisa ulertuta liburugintzaren azterketa, *Jakin*-en 30 zenbakitan emana eta modu zabalagoan “Euskal idazleak gaur” eta “Euskal Kultura gaur. Liburuaren mundua” liburuetan

sakondua. Eta bestetik: liburuen katalogoa, fitxa bibliografikoz osatua. (Euskal) Liburuaren Behatokia sortzekotan dabil.

Argitaratu dituen lanen artean hauek daude, bestak beste:

- *Iraultzaz*, Jakin, 1973.
- *Euskal Idazleak Gaur / Historia Social de la Lengua y Literatura Vascas*, Jakin, 1977.
- *Euskara eta Euskal Telebista*, Elkar, 1984.
- *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa. (I-II-III-IV-V) (1900-2000)*, Gipuzkoako Foru Aldundia / Jakin, 1993-2001.
- *Euskal Kultura Gaur. Liburuaren mundua*, Jakin, 1997.
- *El libro negro del euskera*, Ttarttalo, 1998.
- *Martin Ugalde: Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena*, Jakin, 1998.
- *La Censura de Franco y los escritores vascos del 98*, Ttarttalo, 1998.
- *La Censura de Franco y el tema vasco*, Fundación Kutxa, 1999.
- *Martin Ugalde*, (Bidegileak), Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003
- *Martin Ugalde. Idazlan politikoak. Periodismo político*, 2003
- *Imanol Murua Gipuzkoako Alkate*, Alkartasuna Fundazioa, 2004
- *30 urte liburugintzan*, Jakin, 2007

Saiakera ugari ere idatzi ditu. Besteak beste:

- *Fedea, erlijioa, gizartea*, in: *Kultura eta Fedea*, Jakin, 1971.
- *Kulturgintza eta Rikardo Arregi*, in: *Rikardo Arregi*, Jakin, 1971.
- *Marx eta Jesus Frantzian*, in: *Marx eta Jesus European*, Jakin, 1975.
- *El euskara y la cultura escrita*, in: *Estudio Sociolingüístico del Euskara*, Siadeco, Vol. III, tomo X, 1976.
- *Euskal liburu eta aldizkariak*, Euskaltzaindia, 1976.
- *Liburuak eta Batasuna, (1967-1977)*, Euskaltzaindia, 1978.
- *Euskal Idazleak eta Euskara Batua*, Euskaltzaindia, 1978.
- *Euskal Herriko botoa*, in: *Jakin 11*, 1979.
- *El hecho nacional: lengua, territorio y migraciones en Euskadi*, in: *Nationalia V*, Montserrat, 1980.
- *Euskal Liburu Gaur*, in: *Anuario*, Egin, 1981.
- *Euskararen zapalkuntza (1936-1939)*, in: *Jakin 24*, 1982.
- *Censura y literatura vasca*, in: *Diálogos Hispánicos de Amsterdam*, 1984, 32 orrialde.
- *Bertsolariei inkesta*, in: *Jakin 44*, 1987.
- *Karlos Santamaria eta (euskal) kultura*, in: *Karlos Santamariaren*

lana eta pentsamendua. Bilketa eta azterketa, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1994.

- *Rikardo hurbiletik eta gogoan*, in: Rikardo Arregi. Gizona eta garaia, 1996.
- *Txillardegi eta Martin Ugalderen arteko gutunak (1961-1969)*, in: Jakin 114, 1999.
- Hizkuntz politikaren auzia, in: Jakin 123/124, 2001.
- *Intelektual mediatikoak hizkuntz politikaren aurka*, in: Euskalgintza sindikalgintzan txertatu, Manu Robles-Arangiz Institutua, 2004.

Jaso dituen sarien artean: Euskadi de Plata Saria, (1997), *Euskal Kultura Gaur* liburuari liburudendariak emana, Donostian ospaturiko Liburu Eguneko Azokan liburu salduena izateagatik. Euskadi de Plata Saria, (1998), *El Libro Negro del Euskera* liburuari liburu dendariak emana, Donostian ospaturiko Liburu Eguneko Azokan liburu salduena izateagatik. Eta 2007an, "XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria"-n ohorezko aipamena.